



• **EURORÉGION
EUROESKUALDEA
EURORREGIÓN**

NOUVELLE-AQUITAINE • EUSKADI • NAVARRE
AKITANIA BERRIA • EUSKADI • NAFARROA
NUEVA AQUITANIA • EUSKADI • NAVARRA

**Ekintzen
txostena**
2020

Aurkibidea

Sarrera	5
---------------	---

1

2014-2020 Euroeskualdearen Estrategiaren hedapena	6
--	----------

1.1

Euroeskualdeko hiritartasuna.....	7
Eleaniztasuna	7
Gazteria	8
Kirola	8
Kultura	8

1.2

Ezagutzaren Ekonomia, Berrikuntza eta Enpresen Lehiakortasuna	6
Unibertsitate mailako lankidetzeta eta mugikortasuna	6
Ikerketa, Berrikuntza eta Garapen ekonomikoa.....	8
Enplegua.....	14
Lanbide Heziketa	14

1.3

Lurralde jasangarria	16
Mugikortasuna eta Garraioak	17
Klima aldaketaren aurkako borroka	19
Basogintza	18
Nekazaritza eta nekazaritzako elikagaiak.....	19

2

Osasun egoerara egokitzea	20
--	-----------

3

Finantza instrumentuen balantzea.....	24
--	-----------

4

Balantze finantzarioa.....	28
-----------------------------------	-----------

5

2021-2027 Plan Estrategikoaren lanketa	30
---	-----------

**«Oztopo berriak
sortu arren,
mugaz gaindiko
lankidetza
inoiz baino
garrantzitsuagoa da»**

Sarrera

2020. urtea zaila izan da mugaz gaindiko lankidetzarako. COVID-19ak eragindako krisiak eta sortutako murrizketek mugaz gaindiko harremanetan eragin nabarmena izan dute eta haien maila minimora murriztu dute, hainbat hilabetez. Mugaz gaindiko eremuan askatasunez ibiltzeko ezintasunak bi Estatuen artean antolatuta duten eguneroko bizitza sarritan geldiaraztea ekarri die mugaz gaindiko biztanleei, eta ondorioak izan ditu familia-harremanetan, harreman sozioekonomikoetan baita osasun-zerbitzuen irisgarritasunean ere. Mugaz gaindiko erakundeek, Euroeskualdearen kasuan bezala, egoera berri hori barneratu eta aktiboki lan egin behar izan dute mugaz gaindiko normaltasuna berrezartzeko.

Oztopo berriak sortu arren, mugaz gaindiko lankidetzaz inoiz baino indartsuagoa da. Gainera, Europako Batzordeak egindako ikerketa baten arabera, mugaz gaindiko oztopoen %20 kenduz gero, mugako eskualdeek %2 handituko lukete BPG. *(Iturria: Europako Batzordea)*

2020. urtea, 2021-2027 aldirako plan estrategiko berria idazteko lanak abiarazi duen urtea izan da. Helburu nagusiak jasagarritasuna, digitalizazioa, gizarte kohesioa eta enplegua izan beharko lirateke. Planak prest egon behar luke 2021eko ekainerako.

2020ko jarduera-txostenak honako puntu hauek lantzea proposatzen du:

- 2014-2020 Euroeskualdeko Garapen Estrategiaren hedapena
- Osasun egoerara egokitzea
- Finantza instrumentuen balantzea
- 2020ko balantze finantzarioa
- 2021-2027 Plan Estrategikoa lantzea

**«Urte berezi
honetan,
Euroeskualdeak
bere konpromisoak
sendotu nahi
izan ditu»**

1

2014-2020 Euroeskualdearen Estrategiaren hedapena 6

1.1

Euroeskualdeko hiritartasuna..... 7

Eleaniztasuna	7
Gazteria	8
Kirola	8
Kultura	8

1.2

Ezagutzaren Ekonomia, Berrikuntza eta Enpresen Lehiakortasuna 6

Unibertsitate mailako lankidetzeta eta mugikortasuna	6
Ikerketa, Berrikuntza eta Garapen ekonomikoa.....	8
Enplegua.....	14
Lanbide Heziketa	14

1.3

Lurralde jasangarria 16

Mugikortasuna eta Garraioak	17
Klima aldaketaren aurkako borroka	19
Basogintza	18
Nekazaritza eta nekazaritzako elikagaiak.....	19

Urtez urteko ekintza planak Euroeskualdeko Estrategiaren oinarri diren hiru lehentasun nagusi hauek ditu ardatz:

- Euroeskualdeko hiritartasuna
- Ezagutzaren ekonomia, berrikuntza eta enpresen lehiakortasuna
- Lurralde jasagarria

1.1 Euroeskualdeko hiritartasuna

Osasun-krisia eta mugen itxiera ezaugarri izan dituen 2020. urtea oso kaltegarria izan da kultura, kirola eta hezkuntza bezalako sektoreentzat, ekitaldi eta emankizunik gabe geratu baitira.

Euroeskualdeko plan estrategikoaren lehen ardatza den Euroeskualdeko hiritartasunak, kultura, hezkuntza, gazteria, kirola eta eleaniztasuna alorrak lantzen ditu eta Akitania-Berria, Euskadi eta Nafarroako erakundeekin arteko lankidetzaren proiektuak ahalbidetzen ditu. Urte berezi honetan, Euroeskualdeak bere konpromisoak sendotu nahi izan ditu, eta, horregatik, proiektuak laguntzen jarraitu eta osasun-egoerara egokitzeko aukera eman du, besteak beste luzapenak erraztuz. Normaltasun berriari eta haren ondorioei erantzun nahian, finantza tresna batzuk aldatu dira.

Euroeskualdeko hiritartasuna proiektuen deialdiak, salbuespen gisa atzeratu denak, aurrekontua handitu eta hainbat modalitate aldatu ditu. Besteak beste, honako hauek aipa ditzakegu: proiektuaren prestaketak eragindako gastuak sartzeko aukera, baterako finantzaketarako aukerak zabaltzea, beren konturako langileak bazkideen tipologian sartzeko eta ekintza birtualak sustatzea. Gainera, proiektuen aurkezpena eta justifikazioa errazteko asmoz, izapide guztiak modu birtualean egitea ahalbidetzen da.

Mintegien bidez zuzenean eragileei aurkeztutako berrikuntza horien guztien ondorioz, **deialdietara aurkeztutako proiektu kopururik handiena lortu da: 55**. Kopuru horrek Euroeskualdeak eragile soziokulturalentzat duen garrantzia agertzeaz gain, proiektuen deialdiak gero eta gehiago ezagutzen direla islatzen du. Aurkeztutako proiektuak gero eta konplexuagoak dira (aurrekontu handiagoak, bazkide profesionalen presentzia, etab.) eta horrek proiektuen deialdiaren nolabaiteko profesionalizazioa agerian jartzen du. 2020ko edizioan 19 proiektu hautatu ziren Euroeskualdeko hiritartasuna deialdian.



Prentsaurrekoa • Hautaketa

Proiektu-deialdiez gain, beste ekintza batzuek, hala nola zeharkako proiektuek, lantalde teknikoak egindako dinamizazioak eta lankidetzaren estrategikoei, ekarpenak egin dizkiete lehen ardatzari eta horri esker Euroeskualdeko hizkuntzen ezagutza-maila eta erabilera handitzea, kultura Euroeskualdeko lankidetzaren antolaketa-ardatz bihurtzea eta bertako gazteen arteko elkar ezagutza eta elkarrekintza bultzatzea ahalbidetu da. Euroeskualdearen lehen ardatzeko ekintzak, inoiz baino gehiago, **«Hobeki ezagutu lankidetzaren hobetzeko»** premisaren inguruan egituratu dira.

Eleaniztasuna

Lurraldeko hizkuntzek berebiziko garrantzia dute eta Euroeskualdeko plan estrategikoak bere ekintzen erdigunean jartzen ditu, hizkuntzen egoera aztertu eta haien ezagutza ikasleen artean zein sektore profesional espezifikoetan sustatuz, hala nola merkataritzan, ostalaritzan, turismoan eta pertsonen arretan. Deialdi honen esparruan hautatutako proiektuek aipatutako helburuak lortzen laguntzen dute.

Hainbat hedabide euskaldun gidari dituen **HERALDABIDE** proiektuak, esaterako, euskarazko prentsa-erakundeekin eraldaketa digitala eta digitalizazioa bizkortu nahi ditu, batez ere aldibereko itzulpena erraztuz.



HERALDABIDE proiektuaren sustapena


Horrez gain, **EUROLANG HOST-TUR** proiektuaren xedea ostalaritza eta turismoaren eremuko hiztegi teknikoaren ikaskuntza errazteko lineako plataforma bat sortzea da, lanbide-heziketako gazteen trukeak eta mugikortasuna errazteko. Proiektuen deialdietatik haratago, Euroeskualdeak hizkuntzen arloan lan egiten duten erakundeekin arteko, hurbiltasun-harremana sustatzen du Euskararen Erakunde Publikoarekin, bertako jarduera eta ekimenetan esku hartuz.

Gazteria

2020. urteak Euroeskualdeak gazteekin duen konpromisoa indartzea ahalbidetu du eta gero eta borondate handiagoa dago gazteek elkar ezagutu dezaten, egungo egoeran mugikortasunak trabak izan arren. Euroeskualdearen ustetan gazteak dira bertako etorkizuna eta erakundeak lagundutako proiektuek trukea, berrikuntza eta zainketa sustatzen dituzte.

GABIO proiektuari esker, gazteak sentsibilizatu ahal izango dira eskualdeko biodibertsitatearen inguruan, Pirinioetako ekosistema eta bertako espazio exotikoen inguruan, bereziki.

TXAC PLANETek web serie baten itxura izango du, gazteak kodifikatzen eta hizkuntza informatikoa ikasten has daitezen, etorkizuna duen eremua izango baita.



EGIN + proiektuaren abiatze bilkura


EGIN + proiektuko kideek ingurumen-arazoentzako eragin-irtenbideak modu partekatuan sortu nahi dituzte, ekimen ekintzailearen eta berrikuntza positiboaren bidez.

KEBBEek bioekonomiari eta basoen kudeaketa jasangarriari buruzko modulu bat sortu nahi du. Modulu hori Euroeskualdeko hainbat eskolatan zabalduko da. **MIGRAZINE**, bestalde, zinemaren bidez migrazioaren inguruan kontzientziatzeko proiektua da eta bost dokumental ikusi ondoren, arrazakeriari, xenofobiari eta bazterketari buruzko eztabaida zabaltzea du helburu.

Kirola

Euroeskualdeak kirol arloko hainbat proiektu lagundu ditu 2020. urtean zehar, kirol jarduera eta haren analisia sustatuz. Partidak jokatzeko ezinezkoa dela ikusita, Errugbiko Euskal Federazioarekin, Nafarroako Errugbiko Federazioarekin eta Rugby 64 departamentu-batzordearekin **mugaz gaindiko errugbirako** ekintza-esparru berri bat sortzeko lankidetzak estrategikoa urtebete atzeratu bada ere, erakundeek konpromiso partekatuak aukera emango du, egoerak ahalbidetu bezain laster, txapelketa egiteko eta mugaz gaindiko taldeak antolatzeko.

Bestetik, proiektu deialdiak kirolaren arlok bi proiektu hautatzeko aukera eman du. Lehenengoa, **TranSPORT(s)**, kirolari buruzko ikerketa-proiektua da, Euroeskualdeko lurraldeko kirol, aisialdi eta jolas-praktiken erabilera sozialei buruzko ikerketa-proiektua, hain zuzen. Akitania-Berriko Maison des Sciences de l'Homme erakundeak, Nafarroako Unibertsitate publikoko eta Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzaileek gidatutako proiektua da. Bigarrenak, **COSBOLEK**, beisbol klubaren arteko harremana bultzatu nahi du.



Kultura

Beste hainbat proiektu izan dira **kulturaren, arteen eta sormen-industrien sendotzea** ahalbidetu dutenak. Ikus-entzunezkoen sektoreak hartu du arlo horietako proiektuen erdigunea.


Kultur arloko bi aldizkari lagundu dira 2020an: **MIRA**, landa eremuetako arteak eta kultura jorratzen dituen eta **INFLUX**, Euroeskualdeko sortzaileen lana ardatz duena.

Horrez gain, **NORA** film luzearen proiektua ere babestu da, filma mugaren bi aldeetan aldi berean hedatzeko.

Bestalde, ikus-entzunezko sektorearekin duen konpromisoa dela eta, euskarazko ikus-entzunezko jarduerari buruzko hainbat mahai-ingurutan parte hartu du Euroeskualdeak, Baionako Atalanteko **Rencontres sur les Docks** jardunaldietan, besteak beste.



TranSPORT(s) proiektuaren abiatze bilkura



Arte garaikideak ere badu lekua 2020ko deialdian, **CAYOLAR** proiektuaren aukeraketari esker. Proiektu horrek arte garaikidearen esparruko hogeita hamar artista bildu nahi ditu landa-eremuetan. Hainbat fasetan egituratzen da: artisten egoitzak Biarnoko artzain-bordetan, diziplina anitzeko lanen sorkuntza eta Iruñeako erakusketa.

Bigarren urtez jarraian eman zaio dirulaguntza **ATALAK** sareari, dantzan diharduten artistak profesionalizatu, egituratu eta argitara ateratzea helburu duen sareari, horretarako artisten erresidentziak sortuz eta ekoizpen koreografikoa zein bitartekaritza sustatuz.

Halaber, diru-laguntza eman zaio **IKUSI MIKUSI** euskarazko haur eta gazte literaturako azokari, lehen edizioa antolatzeko, nahiz eta konfinamendu arrazoiengatik bertan behera geratu.

2020an, **AQUITAINE.EUS** (Etxepare Euskal Institutua, Kulturaren Euskal Institutua eta Nafarroako Gobernu Kultura Zuzendaritza) lankidetzazko estrategikoa berritu da, artisten jarduna bideratzeko eta testuingurua gorabehera, beren mugikortasuna errazteko.



2020an, lehen aldiz lagundu dira zirku-arteak, **ZIRKO ENSEMBLE** proiektuarekin. Proiektu horri esker, 15 artista formatu ahalko dira Borderline fabrika, Garaion eta El Punto gunean. Artista horietako bik Borderline Fabrikaren lana aurkeztu eta antzeztu ahal izango dute.

Azkenik, Euroeskualdeak bere babes berretsia die Albalari, Angleteko Fédération Compagnonniqueri eta Donibaneako formazio zentroari, Atlantikoa zeharkatzeko ontzi bat eraikitzeko bigarren eta azken fasea finantzatu baitu **OZEANIQUE** proiektuaren bidez.

Hala, laguntzen dituen arloen bidez (ikus-entzunezkoa, musika, arte garaikidea, dantza, zirkua, etab.), Euroeskualdeak bere eguneroko konpromisoa gogorarazten die kulturaren esparruko eragileei.



Gaztegur proiektuaren aurkezpena

1.2

Ezagutzaren Ekonomia, Berrikuntza eta Enpresen Lehiakortasuna

Euroeskualdeko estrategia barruko ardatz honen helburua hiru lurraldeetako enpresen arteko elkar ezagutza eta komunikazioa hobetzea da, baita ikerketa eta garapen alorreko eragileen artean ere; berrikuntza teknologikoan (mugaz gaindiko start-upen garapena); prestakuntzan (lanbide heziketa eta unibertsitateak) eta enpleguan diharduten erakunde eta eragileen arteko komunikazioa ere. 2020an egindako lana hainbat eremutan garatu da.

Unibertsitate mailako lankidetzak eta mugikortasuna

Euroeskualdeak «mugarik gabeko» prestakuntzaren eta ikerketaren alde lan egin nahi du, bertako unibertsitateetako ikasleen, doktoregaien, irakasleen eta ikertzaileen mugikortasun-baldintzak hobetu eta erraztuz, mugaz gaindiko lankidetzak babestuz eta erakundeen mugaz gaindiko ekimenei ikusgarritasuna emanez.

Ilido horretan, **LLET**ak unibertsitateen arteko lankidetzak, ikasleen mugikortasuna, titulazio bikoitzak eta abar indartzeko borondatea gorpuztu nahi du, **Euroeskualdeko unibertsitate arloko estrategia** baten bidez. 2020rako asmoa unibertsitateko politika publikoen arduradunek eta Euroeskualdeko unibertsitateek partekatzen dituzten lehentasunak definitzea da. Estrategiaren argitalpena 2021eko lehen sei hilabeterako aurreikusita da.



Euroeskualdeko unibertsitate mailako lankidetzarako estrategia lantzeko Zuzendaritza batzordea abiarazteko bilera • 30.06.2020

LLETak lurraldeko 11 unibertsitateen (250.000 ikasle baino gehiago) arteko lankidetzak sustatzen jarraitu du, baita arlo horretako bi lankidetzak estrategikoak garatzen eta berritzen ere.

«**Euroeskualdeko beka**» izeneko lankidetzari esker, Euroeskualdeko unibertsitate-bekadunen bosgarren promozioa lortu da. **AQUIMOB** tresnak, Akitania-Berrian dauden mugikortasun-laguntzak biltzen dituen leihatila bakarrak, eskaerak zentralizatu, eta horien hautaketa zein administrazio eta finantza jarraipena egitea ahalbidetu du. Euskadiko eta Nafarroako erakundeek bat egin dute tresnarekin eta bere erabileraren inguruko prestakuntza jaso dute, horrela eskualdeen arteko administrazio-jardunbideen trukea bideratu ahal izateko.

2020-2021 aldiko bosgarren edizio honetan, hilean 300 euroko 167 ordainketa egin dira. Euskadiko eta Nafarroako 35 ikaslek jaso dute Euroeskualdeko beka, batez beste 4 hilabeteko iraupena izan duena.

Doktoregaien mugikortasuna sustatzeko finantzaketa-beharrak ere identifikatu dira. Euroeskualdeko bekak 21 hileko ordainketa eman die Akitania-Berriko erakundeetako doktoregaiei.

2020an, **EUSKAMPUS eta Bordeleko Unibertsitatearen** arteko (Nazioarteko Bikaintasuneko Euroeskualdeko Campusa) lankidetzak estrategikoarekin jarraitzeko ahalegina egin da ere. Lankidetzak horren helburuetako bat Euroeskualdeko bazkide estrategikoekin goi-mailako irakaskuntzarako, ikerketarako eta berrikuntzarako gune bat eratzea da, nazioarteko lankidetzaren arloan erreferentzia izango dena.

2020an, **EUSKAMPUS BORDEAUX EGUNA** ospatu da modu birtualean (urriaren 30ean). Ekimenak 350 pertsona Bildu ditu ikasle, irakasle eta administrazioko arduradunen artean, Euskampus-Bordele aliantzaren balantzea egin eta abian diren hainbat lankidetzaren egoera aztertzeko, Ezagutzaren arloan, batez ere, gai zientifiko, teknologiko eta sozialen abangoardiako ikerketan dihardutenei. Lehenengoz modu birtualean antolatutako ekimenak, arrakasta handia izan du eta 160 parte-hartzaile baino gehiago izan dira.

Azpitarratzekoa da lankidetzak horri esker Euroeskualdeko unibertsitate-ingurunea sustatzeko eta egituratzeko politikari eutsi ahal izatea, titulazio bikoitz/hirukoitz berriak diseinatzeko eta abian jartzen lagunduz (polimeroei buruzko master bikoitza, UB, EHU eta UPNaren arteko kirolaren traumatologiako unibertsitate arteko titulazioa) eta Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Laborategiak sortuz, fisika-kimika eta fabrikazio aurreratuaren arloetan, besteak beste.



Jardunaldiaren itxiera ekitaldiko irudia, pantailan Euskampuseko erakunde kideen ordezkariak ageri dituenak. Argazkia: UPV/EHU

Aurten mugaz gaindiko lankidetzarako laborategi berri bat sortu da: **GREEN CONCRETE LTC** (gaztelaniazko Laboratorio de cooperación transfronteriza-tik eratorritako LTC siglak dituenak) zientzian eta hormigoi zein zementuzko material jasagarriak ekoizteko prozesuen garapenean diharduena.

Laborategi berri hau lehenik zeuden hirurei gehitu behar zaie: **AENIGME**, fabrikazio jasagarri aurreratuari buruzkoa; **QUANTUMCHEMPHYS**, kimika eta fisika kuantiko teorikoari buruzkoa; eta **TRANSMATH**, matematikari eta bere aplikazioei buruzkoa.

Ikerketa, Berrikuntza eta Garapen Ekonomikoa

Mugaz gaidiko harreman ekonomikoak eta profesionalak sustatzeak Euroeskualearen lehentasun nagusietako bat izaten jarraitzen du 2020an.

Horretarako, lurraldeko enpresen arteko lankidetzak indartzen jarraitu dugu, Euroeskualeko estrategiaren funtsezko sei sektoretan berrikuntza-proiektuak hautatuz:

- Aeronautika - Aeroespazioa - Fabrikazio aurreratua - Autogintza
- Osasungintza - Bio-osasungintza - Silver ekonomia
- Nekazaritza eta nekazaritzako elikagaien industria
- Zurezko eraikuntza jasagarria
- Energia berri-erreserbak
- Itsasoko eta itsasertzeko baliabideak

LLETek Euroeskualeko balio-kateak sortu nahi ditu lehentasuneko eremu horietan, Euroeskualeko proiektuen deialdi, lankidetzak estrategiko zein POCTEFAren bidez.

Esku hartze horiek mugaz gaidiko ingurunearen kohesio ekonomiko eta soziala indartzeko borondatea agertzen dute, ikuspuntu ekonomiko integratuago bat sustatuz. 2020. urtean bi lankidetzak estrategiko jarri dira abian.

BIHARTEAN

Hiru lurraldeetako Merkataritza Ganberak gidaturiko lankidetzak honen bidez, hurbileko nazioartekotzean oinarritutako ekintzak bultzatu nahi dira. Bazkideek 45 ETEren mugaz gaidiko arazoak konpontzen esku hartu dute (azpikontratazioa bilatzea, mailegu-hartzaileak, bezeroak, banatzaileak, bazkideak...).

Merkataritza-ganberak honako zerbitzu hauek eskaini dizkiete era guztietako sektore ekonomikoetako enpresei:

- Enpresaren arazoaren azterketa
- Merkataritza Ganberaren gomendioekin ibilbide-orri batetik, mugako espazioaren ezagutza ekonomikoa eta ortutako esperientziatik abiatuta
- Elkarrekin hautatutako alorren inguruko aholkularitza

Era berean, 3 lurraldeetako kluster sektorialen artean (zurezko eraikuntzaren klusterra, IKTen klusterra eta lurraldeko parke teknologikoen klusterra) gai konbergenteak identifikatu dituzte, arlo horietan mugaz gaidiko topaketak eta proiektuak, jardunbide egokien trukea, ETE, start-up eta teknologia-zentroen arteko lankidetzak eta berrikuntza sustatzeko.

POLEURO

Europako POCTEFA COMPETITIV'eko proiektuaren esparruko mugaz gaidiko hiru klusterrak suspertzerak bideratutako lankidetzak estrategikoa. Proiektu horrek hiru eskualdeetako espezializazio adimendunak aztertzen ditu eta konbergentzia ekonomiko eta estrategikoko, zein lankidetzak lehiakor batean esku har dezaketen berrikuntza-sektoreak eremuak zehaztu ditu. 2019ko amaieratik, POLEUROk hiru lurraldeetako, hots, Akitania-Berriko, Euskadiko eta Nafarroako 39 bazkide ditu mugaz gaidiko hiru partzuergoetan banatuta, lankidetzak gurutzatzen dihardutenak:

• ADDITIVALLEY

fabrikazio gehigarria (13 kide)

• BIG DATIA

Big data & Adimen artifiziala (9 kide)

• INNOVAMEDICA

Neurrira eginiko gailu medikuak (17 kide)



Lankidetzak publiko-pribatu hau COVID-19ak eta 2020ko bi konfinamenduek ezarritako egoeretara egokitzean zentratu da 2020an.

Horrela, 40 bilera kolektibo birtual antolatu dira. Topaketa horien helburua poloen arteko dinamizazioa eustea, ideiak partekatzea eta irtenbide pertsonalizatuak diseinatzea izan da. Horrez gain, lankidetzak honek proiektu kolektiboak sustatu eta proiektuen deialdiak eta aukerak aurkeztu ditu.

Bestalde, kide guztiak biltzen dituen kartografia bat egin da, bakoitzaren aurkezpen-txartela, logoa, kokapena, kontaktua, webgunea agertuz.

Horrez gain, formatu birtualeko azoka profesional batzuetan ere parte hartu (Formnext 2020/Medica 2019/Citeph 2020), eta **10 hitzordu birtual antolatu dira bezero potentzialekin:** Ariane, Vallourec, Total, Stelia, Lisi Aerospace.

ETEetan lehiakortasuna eta berrikuntza sustatzeko asmoz, Euroeskualdeak POCTEFA **COMPET'plus** proiektuan parte hartu du. Ekimen hau 2020 eta 2022 bitartean garatuko da eta proiektuaren %65 Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) finantzatzeko du, Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra programaren bidez (POCTEFA 2014-2020).

2020an, proiektuak mugaz gaindiko espazioaren lehiakortasunerako eskualde-erronkak aztertu ditu. Hori izan da hiru lurraldeek partekatzen zituzten berrikuntza-konbergentziak eta erronkak non kokatzen diren ulertzeko abiapuntua, mugaz gaindiko lankidetzatik abiatuta, hazkunde ekonomikoari heltzeko, lurralde-lehiakortasunaren funtsezko elementu gisa. **Azterketa honek publiko orokorrarentzako bertsio bat du, gaztelaniaz, euskaraz, ingelesez eta frantsesez argitaratua.**



Azterketa-lan horretatik abiatuta, lehen batzorde estrategikoa Bildu da RIS3etatik eratorritako lehentasunezko lau espezializazio eremuak hautatzeko (energia, mugikortasuna, nekazaritzako elikagaiak eta sormen-industriak). Hiru lurraldeetako ordezkariak biltzen dituen batzordeak honako 4 eremu hauek aukeratu ditu:

- Hibridazio energetikoa.
- Elektromugikortasuna, elektrizitate zein hidrogeno bidezkoa
- Jangela kolektiboetako elikadura osasungarria.
- Industriako aplikazioetarako zenbakizko teknologia sortzaileak



COMPET'plus Batzorde Estrategikoa • FICOBA • 08.09.20

COMPET'plus programaren azken helburua enpresa motorren (ETE edo tokiko enpresen) arteko elkarlana sustatzeko bi berrikuntza plataforma eratzea da, horien bidez eskaintza teknologiko bateratua sortzeko.

Horrez gain proiektuaren webgunea sarean jarri da: **competplus.eu**. Proiektuak badu ataria Twitter eta LinkedIn sare sozialetan ere. Une honetatik aurrera, lurraldeko eragileek mugaz gaindiko proiektuarekin zerikusia duten berrikuntza guztiak uneoro jarraitu ahalko dituzte, ordenagailu edo telefono mugikorraren bidez.

Aurrez hautatuak izan ziren lankidetzak estrategikoen jarraipen eta abiaraztean jarduteaz gain, beste zazpi proiektu berri hautatu ditu LLETak Ezagutzaren Ekonomia esparruan, 2020ko proiektuen deialdiaren bidez.



Proiektuen deialdiko hautaketari buruzko prentsaurreko birtuala

Nekazaritza eta nekazaritzako elikagaien industriaren sektoreak

AGROTIC HUB

• Bazkideak

Cluster Agroalimentario de Navarra (NAGRIFOOD),
AGRI SUD-OUEST INNOVATION

Asociación de Cluster de Alimentación de Euskadi

• Aurrekontua 14.000 €

• Dirulaguntza 52.212 €

Proiektu honek hiru eskualdeetako nekazaritzako elikagaien enpresen digitalizazioan laguntzea du helburu, horretarako irtenbide berritzaile onenak enpresa eta ETEen esku jarriko dituen mugaz gaindiko baliabideen Hub (konexio zentroa) sortuz

Osasungintza eta Bio-Osasungintza sektoreak

BILEBANK

• Bazkideak

Fundación para la Investigación Médica Aplicada (FIMA)

Fundacion Miguel Servet

IIS Biocruces

Université Bordeaux

• Aurrekontua 150.000 €

• Dirulaguntza 68.700 €

Euroeskualdean giza behazun-laginen biobanku komun eta funtzional bat ezartzea da proiektuaren helburua, biopsia likido hori aztertzeko beharrezkoak diren prozesuak findu eta bazkideen arteko lankidetzak zientifiko eta teknologikoa indartzeko. Europa mailan aitzindari, BILEBANK proiektuak giza behazunen laginak sistematikoki bilduko dituen nazioarteko biobanku bat garatuko du.

VASADIN

• Bazkideak

Asociación Instituto Biodonostia

NAVARRABIOMED

ALLIS-NA

AUTONOM'LAB

• Aurrekontua 125.000 €

• Dirulaguntza 57.250 €

VASADIN proiektuaren asmoa adinekoen osasun-arretarako eredu bat definitzea da, balioa sortuko duena eta populazio-talde horrek balioetsitako benetako beharrei eta osasun-erantzutzaile erantzutzailearen. Eredu horrek sistema bakoitzaren arrakasta-elementuak, defizitak zein zailtasun espezifikoak dituzten eremuen analisia eta erantzuna emateko irtenbide berritzaile multzoa bilduko ditu.

Eraikuntza jasangarria eta zura

ERAKUSBIDEA

- **Bazkideak**

Asociación Clúster de la Construcción de Euskadi (ERAIKUNE)
Asociación de Empresarios de la Madera de Navarra (ADEMAN)
Odéys

- **Aurrekontua** 118.800 €

- **Dirulaguntza** 54.410 €

Proiektu honek Euroeskualdearen eremuan zuraren eta beste material natural batzuen bidezko eraikuntza jasangarria sustatu eta haren inguruko sentsibilizazioa bultzatzea du xede. Zurez zein Euroeskualdeko biobaliabide diren gainerako materialez egindako eraikuntza jasangarriaren egokitasunaren indartu eta haren inguruko kontzientziazioa hedatzea da helburua.

Aeroespazioa eta fabrikazio aurreratua

VALIDDANTENNESS

- **Bazkideak**

ANTERAL
NAITEC
LAAM Aerospace Additive Manufacturing
Fundación Centro de Tecnologías Aeronauticas - CTA
Hegan Basque Aerospace Clúster et Microlan Aerospace

- **Aurrekontua** 150.000 €

- **Dirulaguntza** 68.700 €

Proiektuaren helburua metalezko fabrikazio gehigarriko tekniken egokitasuna balioestea da; SLM teknikek neurri txikiko sateliteen aplikazio espazialeko antenen fabrikazioan duten egokitasuna balioesteko.



Proiektu deialdiko hautaketaren aurkezpen prentsaurreko birtuala

Energia berriztagarriak

RENOVABLES

- **Bazkideak**

UPV/EHU
UPPA
BCAM
ALERION Technologies
UPNA-ISC
CENER
NAITEC
Catedra TRENT
Sciences Po Bordeaux
INRIA
IMB

- **Aurrekontua** 103.600 €

- **Dirulaguntza** 47.449 €

Bizkaiko golkoan ekonomia urdina bultzatzeko Euroeskualdeko eragile sozioekonomikoen arteko lankidetzak estrategikoa sustatzea du helburu proiektuak. Goi-mailako prestakuntzarako mugaz gaindiko sare bati esker sinergiak sustatzea da helburua, bertako potentzial energetiko altuak justifikatuta. Sarearen egitekoa Euroeskualdeko itsas eremuko erreferentzia puntu bihurtzea izango da, klimatikoki neutroa den Europa baten esparruan.

HIDRO-TTIPI

- **Bazkideak**

Goiener S.Coop.
Nafarkoop Energia S.Coop.
I-ENER SAS

- **Aurrekontua** 146.913 €

- **Dirulaguntza** 6.287 €

Proiektuaren bidez lurralde osoan zentral hidroelektriko bihurtzeko errota hidraulikoen azterketa zehatza egin nahi da, bai eta birgaitzeko egokiak diren hiru lurraldeetako 6 guneren identifikazioa ere. Proiektu pilotu horiek birgaitzea egingo den ibaien ingurumen-egoera hobetzeko palanka izan daitezke. Erronka ekologikoaren eta ekoizpen elektrikoaren arteko oreka optimoa sustatzea izango da azterlan honen faktore garrantzitsuenetako bat.



Proiektu deialdiko hautaketaren aurkezpen prentsaurreko birtuala

Enplegua

Lankidetzaren eremuan, enplegua eta mugikortasuna oso erronka garrantzitsuak dira eta enplegu-arro bat egituratzea da gure lehentasunezko helburuetako bat.

Testuinguru horretan, Euroeskualdeak mugaz gaindi diharduten pertsonen informazioa, aholkularitza eskaintzen die, eskaintzerakoan, pertsona horiek besteren konturako langileak, enplegu-eskatzailak zein enpresaburuak izan. Gainera, COVID-19ak nabarmendu egin ditu lanaren esparruan sortu ohi diren arazoak: ABEak (aldi baterako enplegu-erregulazioak espedienteak), gaixotasunak, haurren zaintza, mugak zeharkatzea.



Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak inoiz baino gehiago lagundu die mugaz gaindiko 3.863 langileei, erabiltzaileen informazio-eskaerei erantzunez. Lehen lerroan, aldi honetan guztian zehar hiritarrak informatuta mantendu ditugu. Errubrika berezi bat sortu da langileei aldi baterako enplegu-erregulazioei, beren eskubideei, mugak zeharkatzeari eta abarri buruzko informazioa emateko. Gure plataforma digitala inoiz baino arrakastatsuagoa izan da eta 2.022 erabiltzaile inguru izan ditu konfinamendu garaian (kopurua % 43 hazi da, aurreko urteko aldi berarekin parekatuta).

2020an, Euroeskualdeak erabiltzaileek plazaratutako zalantzei erantzuten jarraitu du webguneko «Kontaktua» atalaren bidez zein Hendaian duen egoitzako aurrez aurreko arretaren bidez. Hainbat gai errepikatu egin dira. Galdera asko mugaz gaindiko langile gehienei eragin dien enpleguaren aldi baterako erregulazioarekin edota administrazioen eskumen eta ordainketekin lotutakoak izan dira. Hauxe da oso ohikoa izan den beste gai bat: muga zeharkatzea eta telelana. Azkenik, urteko bigarren seihilekoan gora egin dute titulazioak aitortzeari lotutako eskaerak eta mugaz gaindiko langile izatearen baldintzei buruzko galderek.

Euroeskualdeak jardunaldiak dinamizatzen jarraitu du eta urriaren 6an Iruñean antolatutako Enpleguari buruzko mugaz gaindiko jardunaldian eta azaroaren 4an Mugako Eskualdeen Europako Elkarteak (*Association des Régions Frontalières - ARFE*) elkarteak antolatutako udako ikastaroan parte hartu du.



Enpleguari buruzko mugaz gaindiko jardunaldia • 2020ko urria

Ikasketetarako Euroeskualdeko sistemaren egituraketa

LLETak prestakuntzaren eta ikaskuntzaren alorrean dituen esku-hartzeekin jarraitu du, bai POCTEFA **FORMA NAEN** proiektua garatuz (Euroeskualdeko lan-merkatuan sartzea errazteko mugaz gaindiko prestakuntza garatzea), baita **KOMPAR** Lankidetzaren Estrategikoa berrituz ere.

KOMPAR lankidetzaren estrategikoaren helburua gizarte-lanaren eremuko prestakuntza-aukerak zabaltzea da mugaz gaindiko gizarte arloko etorkizuneko profesionalentzat.

Plataforma honen zeregina hiru lan-taldetan antolatzen da:

- Monitore-hezitzailea: gizarte integrazioa
- Haur hezitzailea
- Gizarte eta hezkuntza laguntzailea

Eta hainbat ekintzaren inguruan garatzen da:

- Konpetentzia-erreferentzien konparaketa, mugaren bi aldeetako kalifikazioak identifikatu eta balioesteko
- Euroeskualdean ikasleen mugikortasuna sustatzea, hizkuntza eta pedagogia gaitasunetan oinarrituta. 2020an jarduerak bertualak antolatu dira, 11 ikastetxetako elkartrukeak indartu eta hainbat ekintza eta erronka elkarrekin burutzeko.
- Mugaz gaindiko elkartrukeak eta lankidetzaren indartzea, talde pedagogikoen prestakuntza bateratua sustatuz

Sare honetako 11 zentroek prestakuntzaren kalitatea handitu eta osasun zein gizarte alorrean gero eta nabarmenagoak diren prestakuntza beharrei erantzun nahi diete.



KOMPAR bilera

KOMPAR lankidetzaren estrategikoak bere une gorena unea ezagutu du 2020an, Euroeskualdearekin batera B-SOLUTIONS deialdira aurkeztutako proposamen bat hautatzearekin batera (DG Regiok sustatutako eta Mugako Eskualdeen Europako Elkarteak kudeatutako ekimena - ARFE).

B-SOLUTIONS programak Europar Batasuneko barne-mugetako trabak eta zailtasunak ezabatu nahi ditu, izaera juridiko zein administratiboa duten oztopoak gainditzeko erakunde publikoek proposatutako irtenbideak identifikatuz eta babestuz, hainbat arlotan: enplegua, bidaia-irteerak publikoak, osasun-zerbitzuak (larrialdi-zerbitzuak barne), erakundeen arteko lankidetzak, eleaniztasuna, e-gobernua eta mugako interakzioei buruzko informazio eta datu zerbitzua.



Proiektuek ez dute zuzeneko laguntza ekonomikorik jasotzen; oztopoak gainditzeko aditu juridikoen aholkularitza baizik. **KOMPAR** lankidetzak tituluen ziurtaginari eta homologazioari buruz identifikatutako oztopoei irtenbidea aurkitzea da onartutako proposamenaren helburua.

Mugaz gaindiko lanbide heziketaren garapenari dagokionez eta POCTEFaren laguntzarekin, Euroeskualdeak **FORMA NAEN** proiektua abiarazi du.



Bi urteko epean, 2020tik 2022ra, Lanbide Heziketaren esparruan prestakuntza kualifikatu eta espezifikoa emateko eskaintza garatu nahi du proiektuak, mugaz gaindiko testuingurura egokitua eta gazteei benetako lan-aukerak eskaintzeko gai izango dena.

Proiektua abiarazteko jardunaldian lehen lan-tailerrak egin ziren eta horietan gaur egun proiektuan parte hartzen duten Lanbide Heziketako zentroetan formatzen ari diren berrogei ikasleek hartu zuten parte.



POCTEFaren FORMA NAEN proiektua abiarazteko jardunaldia • 2020.02.21

Proiektuak lau helburu jakin ditu:

- Mugaz Gaiendiko Administrazio Kudeaketarako modulu bat diseinatzea, hiru lurraldeetako araudi juridiko eta komertzialen tratamenduan adituak diren profesionalak prestatzeko.
- Ziurtagiri eta gaitasunen baliokidetasuna eta balioespina erraztea, Automobilgintza sektoreko formazioa eta mugikortasun ziurtatuaren prestakuntza pilotu bat eskainiz.
- Hizkuntza ezberdinetako hiztegi teknikoari buruzko prestakuntza-ikastaro bat diseinatu eta sortzea, kudeaketa administratibo eta automobilgintza alorretarako
- Parte hartzen duten ikastetxeetarako ikasleei eta irakasleei zuzenduriko hainbat sentsibilizazio-ekintza egitea



Mugaz Gaiendiko Administrazio Kudeaketa • Usurbil • 2020.03.10

2020an, BTS Gestion PME eta BTS Action Managériale prestakuntzen erreferentziak Administrazio eta Finantzaketako Goi-mailako Teknikari tituluarekin alderatzean zentratu da proiektua. Era berean, gaitasunen eta beharren diagnostikoa egin da, mugaz gaindiko administrazio-kudeaketari buruzko prestakuntza-plan bat diseinatzeko.

Halaber, mugikortasunaren ziurtaginaren prestakuntza teknikoak lantzen hasi gara automobilgintzaren sektorean. Prestakuntza, zehazki, pintura eta karrozeria moduluko ikasleekin egingo da.



POCTEFaren FORMA NAEN proiektua abiarazteko jardunaldia • 2020.02.21


Hizkuntza-prestakuntzari dagokionez, bi hiztegi tekniko mota diseinatzera eta sortzera bideratuta dago ekimena. Frantseseko eta gaztelaniazko prestakuntza-modulu horiek **FORMA NAEN** proiektuan parte hartzen duten ikasle eta irakasleei zuzenduta daude.



POCTEFAren FORMA NAEN proiektua abiarazteko jardunaldia • 2020.02.21

Prestakuntza parte-hartzaileen beharretara eta ikaskuntza-eritima egokitzeko diseinatu da; lana, ikasketak eta familia bateratzen lagunduz. Ikasleek zein irakasleek oinarritzko maila bat lortzea da helburua, lanbide-ingurune espezifiko batean komunikatu ahal izateko eta horrela haien enplegarritasuna handitzeko. Izen-ematea arrakastatsua izan da eta 150 ikasle baino gehiagok jarraituko baitute prestakuntza 2021ean.

Azkenik, inkesta bat egin da ikasleen artean, haien motibazioak eta beharrak identifikatzeko, bai eta mugaz gaindiko mugikortasuna errazten edo zailtzen duten alderdiak identifikatzeko ere. Inkesta horren ondoren, mugikortasunari buruzko gida bat idatzi eta mugaz gaindiko espazioak eskaintzen dituen aukerei buruz sentsibilizatzeko ekintza espezifikoak egingo dira.



Hizkuntza-prestakuntzaren aurkezpena eta ikasleak sentsibilizatzeko ekintza • 2020.10.30

Proiektuaren sentsibilizazio-lanak errealitate anitza agerian utzi; desberdintasuna balio gisa hartu; jarrerak eta portaerak aldatu eta mugaz gaindiko testuinguruaren eraldaketa sustatu nahi du. Lan-eredu hori bost fasetan banatzen da:

- Pertzepzioa
- Emoziok
- Enpatia
- Hausnarketa
- Ekintza eta sentsibilizazio plana

Euroeskualdea eta hamar erakunde laguntzailez gain, proiektuak zazpi bazkide sustatzaile ditu hiru eskualdeetan banatuta. **Proiektuak Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren (EGEF)% 65eko baterako finantzaketa du, Interreg V-A Espainia, Frantzia, Andorra (POCTEFA 2014-2020) programaren esparruan.**

1.3 Lurralde Jasangarria

Estrategia barruko ardatz honek mugikortasun jasangarria, lurralde antolamendua, klima aldaketaren aurkako borroka, nekazaritza basogintza eta zura gisako arloak biltzen ditu.

Mugikortasuna eta Garraioak

TRANSFERMUGA-RREKIN

Euroeskualdeak TRANSFERMUGA-RREKIN proiektuaren gidaritzan jarraitu du. Europako proiektu hau Interreg POCTEFA 2014-2020 programako proiektuen hirugarren deialdian hautatu zen eta EGEF Eskualde Garapeneko Europako Funtsak % 65 kofinantzatzen du. Euroeskualdeak hainbat ekintza-eremutan jarduten segitu du, mugaz gaindiko joan-etorrietan mugikortasun jasangarria eta garraio-eskaintza hobetzen jarraitzeko asmoz.

Bidaientzako **transfermuga.eu** informazio atariari datu-base zabaldu bat gehitu zaio eta bertan sartzen dira, etengabe, Nafarroako garraio-datuak eta RENFERen datuak, lehendik ere Euroeskualdeko ibilbideen kalkulagailuak bildutakoak mantenduz. Transfermuga.eu atarian egindako lanari esker, erabiltzaileak mugikortasunaren errealitatea ezagutzen ahal du, bereziki pandemia garaiko mugikortasuna mugaren itxierak zailtasunean ematen duelarik.

